


**DIN DIN ITURRIA**  
A MAILA

**MARABIETA BIDEA, Z/G**



**Deskribapena**

Iturri edo ur puntu bat da. Haren jatorria egungo errepidearen azpian dago. Egun, iturriak oraindik ura ematen du, nahiz eta, ziurrenik, orain udal saretik datorren. Gauzarik aipagarriena estilo gotikoko aurrealdea da, hareharrizko silarriz egindakoa (arku zorrotza hurrenez hurreneko zenbait molduratan). Itxura batean, iturriarekin batera zutabe bat edo gehiago zeuden (horien oinarria besterik ez da geratzen). Igeldoko San Pedro elizaren jatorrizko konfiguraziotik etor liteke. Elementu horien babesa erresalbu ezarri da, hondarren hedadurari eta balioari buruzko ziurgabetasuna dela eta.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
"Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).